

# LANGILEOK ERE, AHTri EZ

Abiadura Handiko Tren egitasmoaren inposizioarekin aurrerapausu erabakiarrari ekingo omen diote 2008an hasiera-hasieratik. Duela urtebete hasi zituzten lanak Lukun (Araba), baina harrez geroztik ia ezer ez dute aurreratu. Orain badirudi presaka heldu zaizkiela eta gehiengo sozial eta sindikalak AHTri ezetz esan dion arren, inoiz Euskal Herrian eraiki den azpiegitura antiekologiko eta antisoziala kosta ala kosta gauzatzekoak dira.

**Behar sozialetarako ez omen dago aurrekontu nahikorik**, baina inor gutxiri zerbitzu emango dion **AHTan 9.000 milioi euro xahutzeko bai**, horretarako badago. Etxebizitza politikak, euskara, osasuna... kaltetuak izango dira, geure poltsikoetatik aterako den dirutza horretan gastatuz gero. Gainera, zeharo defizitarioak dira AHTak, ekonomialarien ikerketek eta atzerriko eskarmentuak frogatzen duten bezala. AHT linearen bidaiari eta km-ko kostua itzela da, eraikuntza lanak alde batera utzita ere.

Euskal Herrian **garraioaren egoera** oso txarra da, baina AHTk hori konpontzen lagundu beharrean **kaltetu** egingo du. Ez du xedetzat mugikortasuna beste era batean kudeatu eta berrantolatzea, energia aurrezte, Ama Lurra zaintzea, hubiltasuna, ondasun eta zerbitzu publikoetara heltzeko iriskortasuna bilatuz. Helburua, beste garraio azpiegitura berri batzuekin batera, nola edo hala bidaiak kopuruak areagotzea da, lurralde egitura zentralizatuz eta desorekatuz.

AHT ez da gure herria mesedetzeko egitasmoa, Estatu espainolak eta frantsak diseinatu eta bultzatutakoa baizik. Hipoteca gehiago Euskal Herriaren burujabetzarako. Estatuak izango dira jabeak, bertoko kudeatzaileen ezin hobeto laguntzen dieten arren. Eta errealitateak erakusten du **ez dela bertoko bizilagunen joan-etorri beharrak asetzeko azpiegitura**. Hemengo joan-etorrien % 97 inguru eskualde barrukoak dira. Ez dira heltzen % 1era hiriburuen artekoak, eta Madril edo Pariserakoak askoz gutxiago.

Lana da mugitzeko arrazoi nagusia eta gure desplazamendu beharrak aintzat hartuko lituzkeen garraio publiko zerbitzua, hirigintza eta lurralde antolaketa eredu eskatzen dugun langileok. Baina enpresario boteretsuen eta esanetara dituzten agintarien interesak oso bestelakoak dira: etekin pribatuak gora eta gora.

Bestalde, ekologiarik mesede egingo diola saldu nahi digute. Baina ez gara leloak eta badakigu Euskal Herrian 121 tunel eta 113 bidezubi eraikitzea, 68 milio m<sup>3</sup>-tik gora lur mugitzea, 2.500 hektarea baino gehiago zuzenean okupatzea, 64 zabortegei sortzea, natura balio handiko inguruneak zuzenean kaltetzea eta energia-kontsumoa esponentzialki igoraraztea eragingo duen egitasmoa ez dela hain zuzen ekologikoa.

Bost axola diete agintariei herritarren beharrek, berdin herri-kontsultetan erakutsitako borondateak eta langileok ditugun gabeziak. Inposizio honi aurre egiteko ez digute beste biderik utzi: **MOBILIZA GAITEZEN!**

Están a punto de construir la infraestructura más antisocial y antiecológica jamás realizada en Euskal Herria. Por encima de la mayoría social y sindical, pretenden imponer el TAV, cueste lo que cueste.

**No hay presupuesto para necesidades sociales, pero sí 9.000 millones de euros para derrochar en el Tren de Alta Velocidad.** Dinero salido de nuestros bolsillos que servirá para financiar el TAV en lugar de políticas de vivienda, salud, euskara... Además, el TAV no es rentable social ni económicamente y tendrá un efecto regresivo en el reparto de la renta.

**La situación del transporte** en Euskal Herria es muy mala, pero el TAV en lugar de aportar soluciones **la empeorará**. No pretende preservar el medio ambiente, ahorrar energía, no busca la cercanía y la accesibilidad a bienes y servicios públicos. De hecho, los planes gubernamentales no pasan por la reducción de las necesidades de movilidad, la reordenación y gestión de la demanda. El objetivo del TAV, conjuntamente con otras grandes infraestructuras de transporte, es incrementar los flujos y fomentar un estructura territorial polarizada y desequilibrada.

El TAV no es un proyecto para beneficiar a Euskal Herria, sino diseñado por los Estados español y francés: más hipotecas para la soberanía. Los Estados serán los dueños, aunque las administraciones vascas les prestan su ayuda de modo inmejorable. Y los datos demuestran que **el TAV no es una infraestructura creada para atender nuestras necesidades de movilidad**. No acogería ni tan siquiera el 0,4% de los desplazamientos.

El trabajo es el mayor factor de movilidad. Los y las trabajadoras demandamos un servicio de transporte público, un modelo de urbanismo y ordenación del territorio que tengan en cuenta nuestras necesidades de movilidad y permitan una mejora de nuestra calidad de vida. Pero **los intereses de la patronal y de esos y esas dirigentes a sus órdenes son bien diferentes: aumento sin cesar de los beneficios privados**.

Por otro lado, nos quieren vender que el TAV favorecerá a la ecología. Pero no nos hemos caído de un guindo. Sabemos que construir 121 túneles, 113 viaductos, mover 68 millones de m<sup>3</sup>, ocupar directamente 2.500 hectáreas de tierra, crear 64 vertederos... no es preservar el medio ambiente. Tampoco contribuirá a hacer frente al cambio climático: sólo en su construcción se emitirán más de 2 millones de toneladas de CO<sub>2</sub>.

Al fin y al cabo, les dan igual las necesidades ciudadanas, la voluntad popular expresada en las consultas y las carencias de la clase trabajadora. No nos queda otra que la **MOVILÍZATE. NO NOS CALLARÁN: AHT GELDITU!**

